

GIZARTE EKIMENEN PATRONALEK 0-3ko ETA LANBIDE HEZIKETAKO LANGILEEI TUTORETZA PLUSA ORDAINDU BEHARKO DIETE

Joan den ikasturtearen amaieran, Gizarte Ekimeneko patronalek gatazka kolektibo bat aurkeztu zuten tutoretza-plusak ez ordaintzeko, 0-3 eta lanbide heziketako kolektiboei hitzarmenean adostu bezala.

Atzo, uztailaren 22an, jakin dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenaren erabakia: Gizarte Ekimeneko patronalek tutoretza-plusa ordaindu beharko diete 0-3 zikloko eta lanbide heziketako langileei 2017tik.

Epaia ez da irmoa, baina bide bat markatzen du. LABek epaiari helegiterik ez jartzeko eta gehiago luzatu gabe, epaia betetzeko eskatzen die patronalei. Irailan jakingo dugu ea patronalek errekurtsioa jarriko duten. Patronalen jarreraren arabera LABek egoera juridiko aztertuko du eta erabaki bat hartuko dugu; LABek aurkeztutako gatazka kolektiboa aktibatu, mobilizazioetara deitu...

Zentzu honetan, gogoratu nahi dizuegu LABek sartutako gatazka kolektiboari esker erreklamazio indibidualak egitea ez dela beharrezkoa izango gatazka kolektiboak sektoreko langile gutziak babesten dituelako.

Zalantzaren bat badaukazu LABeko delegatuekin harremanetan jarri edo gure egoitzetara deitu

ANIMO ETA AURRERA!